

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure enpresan bezeroekiko **segmentazioa** aurrera eraman egin dugu, eta honako irizpide hauek kontuan harturik, honela banatu ditugu bezeroak:

- Irizpide geografikoa: Gure inguruko bezeroak aukeratu ditugu momentuz gure eskualdera zuzenduko dugulako gure produktua. Hala ere, enpresaren dimentsio handituko bagenu, gure produktua erabilgarri izango den eskualdeetan ere banatuko genuke *geolokalizazioa* erabiliz aukera pertsonalizatua eskaintzen.
- Irizpide demografikoa: Noski, alergikoak banatu beharko ditugu bai beste pertsonengandik baita haien artean ere (haien alergiak eta intolerantziak kontuan izanik).
- Irizpide psikografikoa: Gure produktua elikadura-lehentasanak (beganoak, barazkijaleak...) dituztenei ere eskainiko dizkiegulako, hauek ere segmentatu beharko ditugu (alergikoen moduan).



Hau ikusita, gure produktua nitxo osatutako merkatu batean eskainiko da.

Gure produktua eskaintzerako orduan, honako **estrategia** hau erabiliko dugu:

- Estrategia kontzentratua gure produktua dohainik erabiltzen dutenentzat (alergiko eta elikadura-lehentasan dituztenei bereziki zuzenduta).
- Estrategia pertsonalizatua ere erabiliko dugu, ordaintzen duten haienentzat. Hauek, haien tarifa kontuan izanik, pertsonalizatu ahalko dituzte eskainiko ditugun zenbait zerbitzu.

**Kanalei** dagokionez, hauek izango dira gureak:

- Komunikazio-kanalak: Webgunea eta sare sozialak izango ditugu. Gure publizitatea ere beste hainbat webgune eta sare sozialetan agertuko da.
- Banaketa-kanalak: Gure aplikazioa izango da (kanal zuzena izango da).
- Salmenta-kanalak: Azoka desberdinetan parte hartu ahalko genuke gure produktua erakusteko, bai eta sukaldari eta jatetxeen ekitaldietan ere (besteak beste).

## Enpatia-mapa

### ZER PENTSATZEN ETA SENTITZEN DU?

Diskriminatuta sentitzen da askotan besteekin konparatuz ezin duelako berdina jan edo edan. Aukera falta dagoenez desberdin sentitzen da eta horretarako pentsatzen du aukerak izanda errezagoa izango zela hobeto sentitzea.



### ZER ENTZUTEN DU?

Orokorrean ez da honi buruz asko hitz egiten

### ZER IKUSTEN DU?

Gure inguruan honelako arazoak dituzten pertsonentzat aukera gutxi daudela

### ZER ESATEN ETA EGITEN DU?

Lan handia dagoela gauzak aurkitzeko

### ZER OZTOPO GAINDITU BEHAR DITU?

- Aukera falta dagoela
- Gastu handiak elikagaiak topatzeko
- denbora behar du informazioa lortzeko, errezeta berriak probatzeko eta egiteko ere. Orokorrean denbora gehiegi behar da bereziki informazioa falta delako.

- Umeak badira beste pertsona batzuen menpe geratzen da ardura (ikastolan, haurtzaindegian, jantokian...) beti gurasoak pendiente ez dakitelako haien umeei zer bait gertatu bazaie

ZER LORTU NAHI DU?

Aukerak lortzeaz aparte ere informazio gehiago izatea da lortu nahi duena. Baita ezberdin ez sentitzea, alergia hori duela ahaztea kanpora ateratzen denean lagunekin edo bazkaltzera, hau da, ardura kentzea badakielako aukera berdinak izango dituela.